

HERRI BATEN ERROAK. Elkarte gastronomikoen sagardotegi jatorria



Gastronomia euskal gizartearen ardatz nagusietako bat izan da eta elkarte gastronomikoen berebiziko garrantzia izan dute jendea biltzeko, gertaera ezberdinak ospatzeko eta sozializazioarako leku gisa.

Rafael Aguirre Francoren "Las sociedades Populares" liburua, elkarte gastronomikoen hauek azken urteotan izandako bilakaera jasotzen du, eta elkarte hauen sorrera, garai batean hiritarrak biltzeko funtzioa

betetzen zuten sagardotegien gainbeherarekin harremanetan du.

Liburu honi erreferentzia eginez, elkarte gastronomikoen hauen jatorria Donostian kokatu behar degu, pasa den mendearen erdialdean. 1863. urtean harresiak bota ostean, herrialde berri bat jaio zen eta honek gizartearen segmentu bakoitza bereizte ahalbidetu zuen espazioen banaketa ondorioztatu zuen; hala, burgesiak kasino eta kafetegietan gozatzeko bere aisialdiaz, eta herritar xumeagoek, sagardotegi eta tabernetan.

Garai haietako sagardotegiak etxeko sotoetan kokatzen ziren eta leku hotzak eta ilunak izaten ziren. Sagardoa gordetzen zuten kupelak ilunantzean egoten ziren eta atzekaldean portutik ekarri berritako sardinak erretzen zituzten.

Sagardoetxea Museoan badugu Astigarragak hiriko sagardotegi hauek hornitzen bete zuten funtzioaren daturik, bai muztioaren ekoizpenarekin, bai karreto-barriketan hirira egiten zen garraioarekin ere.

Baina pixkanaka ardoaren kontsumoa zabalduz joan zen biztanleriaren artean, eta honek hiriko sagardotegi hauen galera ondorioztatu zuen, bezero fidelak kanpora atera behar izaten baitzuten hain maitea zuten sagardoa dastatu ahal izateko.

Egoera honek gaur egun hain ezagunak ditugun elkarte gastronomikoen sorrera ahalbidetu zuen, eta jakin badakigu, garai haietako hiriko sagardotegietan dutela beren jatorria. Ezin uka genezake, beraz, sagardo munduak gaur egungo gizarteri egin dion ekarpen kultural, gastronomiko eta soziala. Herri baten erroak dira.

Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa

Museoak sagarra eta sagardoaren errealitatera gerturatzeko hiru gune eskeintzen ditu:

Sagastia aire librean dagoen gunea da, sagarraren kultura modu dinamiko eta pedagogikoan gozatzeko aukera eman duena.

Sagastiaren alboan, museo-gunea dago eta baliabide eta teknologia aurreratuenak ditu sagarra eta sagardoaren historia, iragana, oraina eta etorkizuna ezagutu ahal izateko.

Hirugarren gunea sagardoa txotxeko ohiturak dastatzeari eta Sagardotxeak hautaturiko produktuen dastaketari zuzendua dago: muztioa, likorea eta sagar dultzea.



Sagardoetxea sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta... Txotx!

Harpidetza

Sagardoaren museoa
Museo de la sidra
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel. 00 34 943 550 575
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com

